

Saio bereziak

Nafarroako Filmotekak beste behin ere bat egin du **Beltza Weekend**-ekin. El trompetista (Michael Curtiz, 1950) filmaren proiektzioa musika beltzari eskainitako Beltza Weekend jaialdiaren bosgarren edizioaren barruan kokatzen da (R&B-tik Soul-era, Jamaikako musikatik igaroz, batez ere Joan den mendeko 50, 60 eta 70eko hamarkadetako rocksteady eta ska). Jaialdia bera irailaren 7,8 eta 9an izango da, baina, horrez gain, musika beltzetan ez ezik, historian, jatorrian, estetikan, kulturen eta horiek garatzen diren testuinguru sozialean ere sakontzea du helburu. Zinema, zalantzarik gabe, aparteko tresna da, sentipen horri, "arima" beltz horri atea irekitzen diguna, eta ulertzen eta testuinguruan kokatzen laguntzen diguna.

Busi Cortés (Mexiko Hiria, 1950) gidoilaria, dokumentalista eta irakasle mexikarra da. Zuzendari eta gidoilari gisa egindako lana garrantzitsua izan da bere herrialdeko zinemarako, femininotasunaren ikuspegitik eta Mexikon emakumearen presentzia politikoa agerian uzteagatik.

Nafarroako Filmotekak mexikar zinemagileari eskainiko dio saio hau, Iruñera egindako bisita aprobetxatuz. Bere filmik ospetsuenetako bat ikusiko dugu, *El secreto de Romelia* (1990) (Mexikoko Zinema Akademiaren opera Prima Onenaren, Musika Onenaren eta Aktore Onenaren saria (Dolores Beristain), besteak beste)